

## 1. BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure enpresak esparru berdinean dauden beste enpresengandik ezberdina izan daiteke hainbat arrazoiengatik.

Hasteko, enpresaren oinarria bigarren eskuko arropa saltzea izango da, eta hau oso onuragarria izan daiteke saltzen den arropa ez delako xahutzen. Arropa berrerabiltzeko modu bat da, material hori zakarretara bota beharrean. Beraz, ingurugiroko arazoei on egingo die.

Gainera, salerosketa honen bidez kalitate altuko edo markako prendak merkeago erosi ahal izango ditu jendeak eta hauek sortzeko esplotazioa erabiltzen duten enpresei boterea gutxitzeko modu bat da, jendeak hauen produktuak zuzenean erosi beharrean, gure bidez jadanik erabiliak izan direnak erosiko dituztelako.

Horrez gain, gure plataforman dendetan aurkitu ezin daitezkeen prendak izango ditugu. Ondorioz, erosleek besteek edukiko ez dituzten arropak bereganatzeko aukera izango dute, eta besteek ez duten estiloa eduki.

Alde positibo asko dituen gero, geroz eta zabalduago dago bigarren eskuko arroparen salerosketa. Horregatik, gure enpresaren bidez erraztasuna eskainiko diegu hau egin nahi duten erabiltzaileei.

Beste alde batetik, dirua irabazteko oso aukera ona da. Diru apur bat behar duen orok, erabiltzen ez dituenak saldu ditzake eta horrela irabaziak lortu. Guk hau egitea erraztu nahi, horrela erabiltzaileak ez dira diru-tramiteen kargu egin beharko.

Hori gutxi balitz, armairu-berritze errentagarri bat lortu daiteke salerosketa honen bidez. Armairua libratu nahi dutenek, gure enpresaren bidez kendu nahi dituzten arropaz ahaztu daitezke eta bide batez irabazi ekonomiko bat lortu.

Bukatzeko, stock-a berrituz joango zaigu denbora guztian. Hau da, jendeak behin eta berriro bidaliko dizkigu gauza berriak, eta hau gertatzen den heinean gure eskaintza denbora guztian berrituz joango da.